



AURREZ AURREKO FINAL HANDIKO JARRAIBIDEAK

1. *GURROT* aplikazioko talde finalistek **apirilaren 26an, arratsaldeko 17:00etan, Ipar Aretoan egon beharko duzue** (hotelaren aurrean dagoen E atearen sarreran). Bestalde, ekitaldia 20:30ak aldera amaituko dela aurreikusten dugu.

Era berean, lagunak eta familiak gonbidatzeko aukera izango duzue eta kasu honetan, garrantzitsua izango da gonbidatzen dituzuen kide horien asistentzia bermatzea, bestela batzuk toki gabe gelditu daitezkeelako. Kasu honetan, familiak eta lagunak 18:00etan orduan sartu ahal izango dira.

Gonbidapenei dagokionez, finalean parte-hartuko duen gazte bakoitzak 8 kide gonbidatu ahal izango ditu eta txapeldun ordeek, ostera 3 kide gonbidatu ahal izango dituzue.

2. Horren ostean, parte-hartzaile bakoitzari kamiseta bat emango dizuegu. Horrez gain, finalera sailkatu zareten taldeok argazkiak ateratzeko aukera izango duzue zelaiaren aurrean argazkilari profesional batekin.
3. **Bestetik, egitura honakoa izango da:**
 - a. Jon Gomez aurkezlearen **ongi-etorria eta taldeen aurkezpena.**
 - b. Pantailetan, *GURROT* karatula, tokatzen denean galdera eta momentuan jokutzen ari den fasearen puntuazioa agertuko da. Horrez gain, fase bakoitzeko puntuazioa independentea izango da (ekitaldiaren amaieran puntu guztiak batuko dira).
 - c. Horrez gain, galdera guztiak KAHOOT aplikazioaren bidez erantzun behar izango dituzue eta galdera guztiak *GURROT* aplikaziotik hartutakoak izango dira.

Lehenengo fasea:

- Lehenengo sei taldeak lehiatuko dira eta 15 galdera erantzun behar izango dituzte. *Hortik 2 talde sailkatuko dira final handira.*
- Fase honetan honako taldeak jokatuko duzue: Abanto-Zierbena, Amorebieta-Etxano, Durangaldea, Enkarterriko Mankomunitatea, Erandioko Udala eta Gernika-Lumoko talderik onenek.

Bigarren fasea:

- Bigarren sei taldeak lehiatuko dira eta 15 galdera erantzun behar izango dituzte. *Hortik 2 talde sailkatuko dira final handira.*
- Fase honetan Getxo, Lekeitio, Mungia, Sestao eta Txorierriko Mankomunitatea.

Oharra: *12. taldea oraindik ez dakigunez, apirilaren 18an 1. fasean edo 2. fasean sartuko dugu (betiere, errepikatzen ez den udalean) eta horren arabera zehaztu ahal izango dugu bakoitzak zein fasetan parte-hartuko duen.*

4. **Musika-ekitaldia:** STR taldeak pare bat abesti kantatuko dituzte.
5. **Final handia:** fase bakoitzeko bi talde onenek hartuko dute parte, guztira 4 taldek.
 - 15 galdera
 - 4 imintzio (16 guztira)
 - 15 galdera
6. **Publikoaren jolasa**
7. **Sari-banaketa.** Sariak honakoak izango dira (irabazle bakoitzarentzat eta berak hautatzen duen helduarentzat):
 - a. 1 saria: Madrilgo Warnerrera (bidaia / bi gau hotel batean eta sarrerak).
 - b. 2 saria: Biarritzera asteburu pasa (Aquariumera eta Cité de Lóceanera sarrerak eta gau bat hotel batean).
 - c. 3 saria: IrriSarri Land abentura parkerako sarrerak eta gau bat hotel batean.
 - d. 4 saria: Athleticen Museorako sarrerak.
8. Ekitaldiaren amaiera

ANIMO eta ZORTE ON!